

# UDALEKUEN PROIEKTU PEDAGOGIKOA

## 1. SARRERA

Txatxilipurdi irabazi asmorik gabeko euskara elkarte da. Arrasatetik haur, nerabe eta familiekin euskarazko aisialdi hezitzailea lantzen dugu eta bizitzarako behar dituzten balore eta gaitasunak garatzen laguntzen diegu, hala nola, euskaltzaletasuna, feminismoa, parte-hartzea, autonomia, naturarekin harremana, aniztasuna eta inklusioa. Horretarako, hezkuntza ez-formaletik egiten dugu lan.

Txatxilipurdik 30 urte baino gehiagoko ibilbidea du haur eta nerabeen aisialdi hezitzailean. Urte hauetan guztietan zehar, udalekuak izan dira gure jardunaren ardatzetako bat, haur eta nerabeentzako esperientzia esanguratsuak sortzeko tresna garrantzitsua direlako. Udalekuak aisialdirako espazio hutsak baino gehiago direla ulertzen dugu; bizikidetza, harremanak, autonomia, parte hartzea eta hazkunde pertsonala lantzeko gune hezitzaileak dira.

Proiektu pedagogiko honen bidez, Txatxilipurdik antolatzen dituen udaleku guztien oinarri hezitzaile eta metodologiko orokorrak jasotzen dira. Dokumentu hau Eskoriatzako udalekuetako erreferentziazko markoa izango da, udaleku bakoitzaren ezaugarri eta testuingurura egokituko den arren.

Gure udalekuetan parte hartzen duten haur eta nerabeak subjektu aktibo gisa ulertzen ditugu. Hau da, beraien iritziak, beharrak, emozioak eta interesak kontuan hartzen dituzten espazioak sortzea dugu helburu. Udalekuetan ez dugu aisialdi kontsumista edo pasiboa sustatzen; kontrara, parte hartzea, sormena, harremanak eta bizipen partekatuak oinarri dituen aisialdi hezitzailea bultzatzen dugu.

Era berean, udalekuak komunitatea eraikitzeko espazio gisa ulertzen ditugu. Euskaratik eta euskaraz, zaintza erdigunean jarriz eta pertsona guztien aniztasuna aitortuz, bizikidetza osasuntsu eta segurua sustatzen dugu.

## 2. TXATXILIPURDIREN MISIOA ETA BISIOA

### Misioa

Txatxilipurdi irabazi asmorik gabeko euskara elkarte da. Arrasatetik haur, nerabe eta familiekin euskarazko aisialdi hezitzailea lantzen dugu eta bizitzarako behar dituzten balore eta gaitasunak garatzen laguntzen diegu, hala nola:

- Euskaltzaletasuna
- Feminismoa
- Parte-hartzea
- Autonomia
- Naturarekin harremana

- Aniztasuna
- Inklusioa
- Zaintza
- Elkartasuna

Hezkuntza modu integral batean ulertzen dugu, eta hezkuntza ez-formaletik abiatuta, hezkuntza informal eta formalarekin elkarreaginean egiten dugu lan.

## Bisioa

Beste jendarte eredu bat lortzeko modu koherentean haur, nerabe eta familien aisialdian lan eraginkorra egingo duen elkarteak izan nahi dugu.

Honako balio hauek dituen jendarteak eraikitzen lagundu nahi dugu:

- Euskaldunagoa
- Feministagoa
- Inklusiboagoa
- Parte hartzaileagoa
- Zaintzaileagoa
- Kritikoagoa
- Sortzaileagoa
- Jasangarriagoa
- Horizontalagoa
- Zoriontsuagoa

## 3. AISIALDI HEZITZAILEAREN ULERMENA

Txatxilipurdi aisialdi hezitzailea haurren eta nerabeen garapen integralerako espazio gisa ulertzen dugu. Aisialdia ez da denbora huts bat betetzea; pertsonak modu librean, seguruan eta kolektiboan hazteko aukera bat da.

Udalekuek, jolasak, harremanak, bizikidetzak, naturarekiko loturak eta esperimentazioak protagonismo berezia hartzen dute. Esperientzien bidez ikastearen alde egiten dugu, haur eta nerabeen erritmoak eta interesak errespetatuz.

Haurrak eta nerabeak gaur egungo herritarrak direla ulertzen dugu, ez etorkizuneko heldu hutsak. Horregatik, beraien hitza entzutea, parte hartzea ahalbidetzea eta erabakiak hartzeko espazioak eskaintzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

## 4. UDALEKUEN HELBURU OROKORRAK

Eskoriatzako udalekuen helburuak honako hauek izango dira:

- Haur eta nerabeei euskarazko aisialdi hezitzaile segurua, aberasgarria eta kalitatezkoa eskaintzea.
- Euskara harreman hizkuntza eta gozamenerako hizkuntza gisa sustatzea.
- Parte hartzaileen autonomia pertsonala eta kolektiboa garatzea.
- Parte hartzea eta erabakiak hartzeko gaitasuna sustatzea.
- Bizikidetzaren osasuntsua eta errespetuzkoa eraikitzea.
- Harreman osasuntsu eta zaintzaileak sustatzea.
- Talde kohesioa eta elkarlana lantzea.
- Natura ezagutu, zaindu eta harekin lotura afektiboa eraikitzea.
- Pertsona guztien aniztasuna aitortu eta errespetatzea.
- Berdintasunean eta hezkidetzan oinarritutako harremanak sustatzea.
- Parte hartzaileen ongizate emozionala eta fisikoa bermatzea.
- Esperientzia positiboak eta esanguratsuak sortzea.

## 5. PROIEKTUAREN OINARRI PEDAGOGIKOAK

### 5.1 Euskara

Txatxilipurdi euskara gure hizkuntza propioa eta komunitatea eraikitzeko tresna nagusia da. Udalekuan euskaraz bizitzeko espazio naturalak sortzen ditugu, hizkuntza modu atsegin, gertuko eta inklusiboan erabiliz.

Ez dugu euskararen erabilera inposiziotik lantzen; motibaziotik, harremanetik eta gozamenetik baizik. Udalekuan bizitzen diren esperientzia positiboek euskararekiko lotura afektiboa indartzea bilatzen dugu.

### 5.2 Parte hartzea

Parte hartzea udalekuan oinarrietako bat da. Haur eta nerabeek udalekuan bizitzan modu aktiboan parte hartzeko aukera izango dute:

- Proposamenak eginez
- Erabaki batzuetan parte hartuz
- Taldearen antolaketan inplikaturik
- Gatazken konponketan parte hartuz

Parte hartzea ez dugu soilik ekintzetan egotea bezala ulertzen; norbere burua entzuna eta kontuan hartua sentitzea ere bada.

### 5.3 Autonomia

Udalekuak autonomia lantzeko espazio pribilegiatuak dira. Parte hartzaileek eguneroko bizitzako hainbat egoeratan ardura txikiak hartzeko aukera izango dute, beraien adin eta garapen mailara egokituta.

Autonomia lantzea ez dugu bakarrik “bakarrik egitearekin” lotzen; konfiantza, gaitasun pertsonalak eta norbere buruarenganako segurtasuna eraikitzearekin ere lotzen dugu.

## 5.4 Harremanak eta bizikidetza

Udalekuetan sortzen diren harremanek balio hezitzaile handia dute. Harreman osasuntsuak, errespetuzkoak eta zaintzaileak eraikitzen laguntzea dugu helburu.

Horretarako horrelako dinamika edota jarrerak bultzatzen ditugu:

- Tratu onak sustatzen ditugu.
- Gatazkak modu eraikitzailean lantzen ditugu.
- Komunikazio ez bortitza erabiltzen dugu.
- Elkar entzutea eta enpatia sustatzen ditugu.
- Talde kohesioa lantzen dugu.

## 5.5 Hezkidetza eta feminismoa

Txatxilipurdiko udalekuak espazio feministak izatea nahi dugu. Pertsona guztiek seguru, errespetatu eta onartuak sentitzeko baldintzak sortzen ditugu.

Genero estereotipoak eta rol tradizionalak zalantzan jartzen ditugu, eta ekitatean oinarritutako harremanak sustatzen ditugu.

Zaintza udalekuetako bizitzaren erdigunean jartzen dugu: Norbanakoarena, taldearena, harremanena, espazioarena eta ingurunearena.

## 5.6 Inklusioa eta aniztasuna

Pertsona guztiak desberdinak garela ulertzen dugu, eta aniztasuna aberastasun gisa bizi nahi dugu.

Udalekuetan:

- Pertsona guztien erritmoak errespetatzen dira.
- Parte hartzaile guztien beharrak kontuan hartzen dira.
- Diskriminazio egoerak prebenitzen dira.
- Espazio seguruak sortzen dira.
- Identitatea, gorputza, kultura, hizkuntza eta errealitate anitzak aitortzen dira eta bizikidetza sustatzen da.

## 5.7 Natura eta ingurumenarekiko harremana

Naturarekin ber konektatu eta harremana eraikitzeko espazioak sortzen ditugu, ingurunea ezagutu eta zaintzeko jarrerak sustatuz.

- Ongizatea sustatzen dute (aspektu emozional, fisiko eta psikologikoan)
- Askatasun sentazioa handitzen dute.
- Esperimentazioa eta sormena ahalbidetzen dituzte.
- Talde harremanak aberasten dituzte.
- Ingurumenarekiko errespetua lantzen dute.

Era berean, udalekuetan jasangarritasuna eta ingurumenarekiko ardura sustatzen ditugu:

- Materialen erabilera arduratsua
- Hondakinen murrizketa eta birziklapena
- Espazioen zaintza
- Kontsumo arduratsua

## 6. METODOLOGIA

Udalekuetako metodologia parte hartzailea, aktiboa eta esperientzian oinarritua izango da.

Udalekuetako egunerokoa:

- Jolasa izango da ikaskuntza eta harremanetarako tresna nagusia.
- Parte hartzaileen interesak eta beharrak kontuan hartuko dira.
- Taldearen erritmoetara egokituko gara.
- Esperimentazioa eta sormena sustatuko dira.
- Hezitzaileek bidelagun rola izango dute.
- Harreman hurbil eta konfiantzazkoak eraikiko dira.
- Asanbladak eta elkarrizketa espazioak erabiliko dira.
- Esperientzia kolektiboari balioa emango zaie.

Programazioak malguak izango dira, udaleku bakoitzeko taldearen errealitatera egokitzeko.

## 7. HEZKUNTZA LANTALDEA

Hezkuntza lantaldea udalekuetako funtsezko erreferentea izango da. Hezitzaileek ez dituzte soilik jarduerak dinamizatuko; bidelagun eta erreferente hezitzaile izango dira.

Hezkuntza taldearen egiteko nagusiak honako hauek izango dira:

- Parte hartzaileen ongizatea bermatzea.
- Taldearen bizikidetzaren zaintzea.
- Harreman seguru eta osasuntsuak sustatzea.
- Parte hartzaileei entzute aktiboa eskaintzea.
- Gatazkak modu hezitzailean lantzea.

- Parte hartzea sustatzea.
- Balio hezitzaileak egunerokoan txertatzea.
- Babes eta zaintza protokoloak aplikatzea.

Hezitzaileek erreferente koherenteak izateko ahalegina egingo dute, udalekuetako balioak eguneroko praktikaren bidez transmitituz.

## 8. ZAINTZA

Txatxilipurdik udalekuak haur eta nerabeentzako espazio seguruak izan daitezen lan egiten du.

Horretarako:

- Tratu onak sustatzen dira.
- Indarkeria egoerak prebenitzeko neurriak hartzen dira.
- Entzute eta konfiantza espazioak sortzen dira.
- Parte hartzaileen ongizate emozionala zaintzen da.
- Gatazkak modu hezitzailean lantzen dira.
- Babes protokoloak eta jarduteko irizpideak aplikatzen dira.
- Hezitzaileek haurren babesaren inguruko formazioa jasotzen dute.

Zaintza udalekuetako bizitzaren erdigunean kokatzen dugu, ulertuz pertsona guztiok garelara zainduak izateko eta zaintzeko subjektuak.

## 9. FAMILIEKIKO HARREMANA

Familiak hezkuntza komunitatearen parte direla ulertzen dugu. Horregatik, udalekuetan familiekiko komunikazio hurbila, gardena eta zainitzailea sustatzen dugu.

Familiei udalekuetako, oinarri pedagogikoak, helburuak, funtzionamendua, bizikidetzaren irizpideak, segurtasun eta zaintza neurriak modu argi eta ulergarrian helaraziko zaizkie.

## 10. LABURBILDUZ

Txatxilipurdiko udalekuak haur eta nerabeentzako aisialdi hezitzaileko espazioak dira, bizipen esanguratsuak sortzeko, harremanak eraikitzeko eta pertsonalki zein kolektiboki hazteko aukera eskaintzen dutenak.

Euskaratik eta euskaraz, parte hartzea, zaintza, autonomia, feminismoa, inklusioa eta naturarekiko lotura oinarri hartuta, udalekuak jendarte eraldatzaileago baten eraikuntzan ekarpena egiteko espazio gisa ulertzen ditugu.

Gure helburua ez da soilik udaleku on batzuk egitea; haur eta nerabeek beraien burua entzuna, errespetatua, zaindua eta komunitate baten parte sentitzea da.